

**VII. ATALA
BESTE ZENBAIT****Bilboko Merkatariza, Industria, Zerbitzu eta Itsasketa Ganbera Ofiziala****Aldizkari iragarkiaren laburpena Xpande 2022 programako laguntzen deialdia.**

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/623107>).

Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberak ezagutzera ematen du ETEen nazioarteko zabalkunderako Xpande 2022 laguntzen deialdi publikoa. Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatzen ditu laguntza horiek.

Lehena.— Onuradunak

Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberaren lurralde-mugapeko ETEak eta autonomoak, EJZ erroldan alta hartuta daudenak.

Bigarrena.— Xedea

Nazioartean zabaltzeko planak diseinatu, garatu eta gauzatzeko laguntzak ematea, Xpande programaren esparruan. Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) finantzatuko du plan horien %50a.

Hirugarrena.— Deialdia

Enpresek deialdiaren testu osoa eskura dezakete Bilboko Ganberaren egoitza elektronikoan. Baita ere kontsultatu dezakete <https://www.camarabilbao.com/autonomos-empresas/internacionalizacion/programa-xpande/> webgunean.

Esteka horretan deskargatu ahal izango dituzte deialdia bera eta eskaera egiteko behar den dokumentazio guztia.

Laugarrena.— Zenbatekoa

Deialdi honen kargura emango diren laguntza ekonomikoak 18.000,00 euro-koak izango dira. Enpresa bakoitzak gehienez 9.000 euro-ko aurrekontu hautagarria izango du, zeina enpresa onuradunak berak finantzatu beharko baitu aldez aurretik. EGEFek aurrekontu horren %50a finantzatuko du, hortaz, enpresa bakoitzeko gehieneko laguntza 4.500 euro-koa izango da.

Laguntza hauek Xpande Programaren barruan sartzen dira, zeinak 31.156,00 euro-ko gehienezko exekuzio-aurrekontua baitu «Espainiako Eskualde Anitzeko 2014-2020 Programa Operatiboaren» esparruan, eta zeinak bere baitan hartzen baititu doako aholkularitza- eta jarraipen-zerbitzuak.

Bosgarrena.— Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea goizeko 9:00etan irekiko da, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun baliodun igarotzen direnean, eta zabalik egongo da 2022ko ekainaren 1eko eguerdiko 14:00ak arte. Hala ere, baliteke epe hori laburtzea aurrekontua agortzen bada.

Bilbon, 2022ko apirilaren 26an.—Jarduneko Idazkari Nagusia, Mikel Arieta-Arauna-beña